

MUST +PRO 2026 TOPAGUNE PROFESIONALAREN **PROGRAMAZIOAN PARTE HARTUKO DUTEN MUSIKA** **PROPOSAMENAK HAUTATZEKO DEIALDIA**

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak Must +Pro Euskal Herriko musika sektore profesionalaren topagunearen bigarren edizioko programazioan parte hartzeko musika proposamenak aurkezteko epea ireki du.

1/ Jardueraren xedea.

Must +Pro topaguneak katalizatzaile bat izan nahi du, partekatutako esperientzien eta ikaskuntzaren bidez testuinguru egokia ezarriko duena, Euskal Herriko musika-sektorea hazi dadin eta kalitateari eta lankidetzari dagokienez aurrera egiteko.

Euskal Herriko musika sektore profesionalaren urteroko topagunea da Must +Pro, eta bere programan hainbat showcase biltzen ditu, zuzeneko musikaren sektorea dinamizatzeko eta dagoen talentua balioan jartzeko.

Bigarren edizio honetan, Euskal Herriko hainbat artistak beren musika proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte topagunera bertaratzen direnen profesionalen eta publiko orokorraren aurrean, argitalpen-, sustapen-, ordezkaritza- edo kontratazio-akordioak sustatuz.

2/ Showcase-n formatuak: Must +Pro Live eta Must +Pro Sarean.

Bi motako showcaseak egongo dira Must +Pro ekimenaren baitan: Must +Pro Live eta Must +Pro Sarean. Formatu, ordutegi eta publiko ezberdinak dituzte bi erakustaldi hauek. Deialdira aurkezten diren artistak showcase bakoitzera edo bietara aurkeztu ahal izango dira. Bietako showcase batean aukeratzen den artistak/taldeak ezin izango du bestean parte hartu.

Hurrengo ataletan adierazten dira bi showcase hauteko ezaugarriak.

2.1/ Must +Pro Live.

Hautatutako 8 musika proposamenek 30 minutuko zuzeneko aurkezpena egingo dute Must +Pro topagunera bertaratutako profesionalen eta publiko orokorraren aurrean.

Showcaseak arratsaldean egingo dira eta soinu-probak aurreko orduetan egingo dira. Zuzeneko emanaldiaren arteko aldaketek ez dute 25 minutu baino gehiago iraungo.

Must +Pro Live showcasetan parte hartzen duten artista bakoitzaren errepresentazioak Must +Pro-rako doako akreditazio bat eskatzeko aukera izango du.

2.1.1/ Baldintza ekonomikoak.

Hautatutako artistek Musika Bulegoaren laguntza ekonomikoa jasoko dute dieten eta joan-etorrien gastuei aurre egiteko.

Emanaldi bakoitzeko oinarrizko laguntza ekonomikoa Must +Pro Live emanaldian zehar joko duen taldea edo banda osatzen duten musikarien kopuruaren arabera banatuko da. Teknikariak, ordezkariak eta emanaldia osatzen duten musikariak ez diren artistak kontaketa honetatik at geratuko dira. Banaketa hurrengo moduan egingo da:

MUST +PRO

Musikaren
Topagune
Profesionala

Honako hauek osatzen duten taldea edo banda:

- 1 pertsona: 200EUR
- 2 pertsona: 300EUR
- 3 pertsona: 400EUR
- 4 pertsona: 500EUR
- 5 pertsona edo gehiago: 600EUR

Oinarrizko dirulaguntzari 100EUR gehituko zaizkio proposamen artistikoak soinu eta/edo argi teknikari lana egiten duen pertsona bat badakar. Teknikari bat baino gehiago egonez gero, ez da inolaz ere hitzartutakoa baino kopuru handiagorik emango.

Laguntza hau kobratzeko, ezinbestekoa izango da artistaren edo taldearen legezko ordezkariaren izenean faktura bat aurkeztea.

2.1.2/ Eguna eta lekua.

Showcaseak maiatzaren 13 eta 14ean egingo dira, Bilboko Bilborock aretoan. Jardunaldi bakoitzean 4 emanaldi artean izango dira, 19:00etatik 22:30etara bitarte.

Hautatutako artisten banaketa eta ordena ez da ekitaldia baino hilabete bat lehenago arte jakinaraziko.

2.1.3/ Nori dago zuzenduta.

Zuzenean aurkeztu nahi dituzten proposamen musikalak dituzten bat duten artistei.

2.1.4/ Aurkezteko baldintzak.

Deialdira aurkezten diren musika-proposamenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. EP edo album bat eta gutxienez 30 minutuko musika originala argitaratuta izatea.
2. Barruko espazio eszenikoetara egokitutako proposamen musikala izatea.
3. 2026 urtean zehar zuzenekoak emateko disponibildadea izatea.
4. Taldeko kide guztiak Gizarte Segurantzari alta emanda egotea, lanbide-jarduera musikaren eta/edo zuzeneko musika-emanaldien eremuari dagokion epigrafean.
5. Fakturatzeko gaitasuna izatea.
6. Izena emateko [formularioa betetzea](#).

2.1.5/ Epaimahai profesionala eta hautaketa-irizpideak.

Musikaren sektorean adituak diren pertsonak osatutako epaimahai profesional batek, Musika Bulegoak aukeratuko dituenak, hautatuko ditu Must +Pro Live '26 showcase-etan parte hartuko duten 8 musika proposamenak.

Epaimahai profesional horrek honako kontzeptu hauek baloratuko ditu:

1. Ikuskizun, album edo EP estreinaldiak.



MUST +PRO

Musikaren
Topagune
Profesionala

2. Artistaren nortasuna eta musika-ikuskizunaren originaltasuna.
3. Arrisku artistikoa eta artistaren edo bandaren ibilbidea.
4. Ordezkaritza-enpresaren sendotasuna.
5. Saltzeko ahalmena, bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa.
6. Proiektuaren helburuen azalpena (xede dituen programatzaileak, lurralde-eremua, etab.) eta helburu horiek lortzeko Must +Pro topagune profesionaletik igarotzeak duen garrantzia.
7. Genero-berdintasuna eta adin-aniztasuna.
8. Euskal Herrian sortu, ekoitzi edo garatutako proposamenak

Estilo eta genero guztietako proposamenak aurkeztu ahal izango dira.

2.2/ Must +Pro Sarean

Antzokietako musika-programazioa eta kontratazioa sustatzeaz gain, Euskadiko Antzoki Sarea-ko programatzaileek eta musikaren sektoreak elkar hobeto ezagutzea sustatu nahi da.

Hautatutako 8 musika proposamenek 10 minutuko zuzeneko aurkezpena egingo dute Must +Pro topagunera bertaratutako Sarea-ko programatzaileen aurrean. Zuzeneko emanaldiak dituzten aurkezpenak lehenetsiko dira. Horretarako, antolakuntzak oinarritzko musika set bat izango du.

Aurkezpenak goizez egingo dira eta emanaldien arteko aldaketek ez dute 5 minutu baino gehiago iraungo.

Aurkezpenen ondoren, ordubeteko networking saio bat egongo da. Taldeek eta artistek 5 minutuko bilera azkarrak egiteko aukera izango dute programatzaile guztiekin.

Must +Pro Sarean '26 showcasetan parte hartzen duten artista bakoitzaren errepresentazioak Must +Pro-rako doako akreditazio bat eskatzeko aukera izango du.

2.2.1/ Baldintza ekonomikoak.

Hautatutako artistek 120EUR-ko (zergak kontutan eduki gabe) laguntza ekonomikoa jasoko dute Musika Bulegoaren eskutik.

2.2.2/ Eguna eta lekua.

Showcaseak maiatzaren 13ean egingo dira, Bilboko Bilborock aretoan, goizeko 10:00tik 12:30etara bitarte.

2.2.3/ Nori dago zuzenduta.

Barruko espazio eszenikoetan zuzenean aurkeztu nahi dituzten proposamen musikalak dituzten artistei.

2.2.4/ Aurkezteko baldintzak.

Deialdira aurkezten diren musika-proposamenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Barruko espazio eszenikoetara egokitutako proposamen musikala izatea.
2. 2026 urtean zehar zuzenekoak emateko disponibildadea izatea.
3. [Izena emateko formularioa](#) betetzea.

MUST +PRO

Musikaren
Topagune
Profesionala

2.2.5/ Epaimahai profesionala eta hautaketa-irizpideak.

Musikaren sektorean adituak diren pertsonak osatutako epaimahai profesional batek, Musika Bulegoak aukeratuko dituenak, hautatuko ditu Must +Pro Sarean '26 showcase-etan parte hartuko duten 8 musika proposamenak.

Epaimahai profesional horrek honako kontzeptu hauek baloratuko ditu:

1. Ikuskizun, album edo EP estreinaldiak.
2. Artistaren nortasuna eta musika-ikuskizunaren originaltasuna.
3. Arrisku artistikoa eta artistaren edo bandaren ibilbidea.
4. Genero-berdintasuna eta adin-aniztasuna.
5. Euskal Herrian sortu, ekoitzi edo garatutako proposamenak
6. Musika Bulegoko bazkide izatea.

Honetaz gain, Antzokien askotariko ezaugarriak kontuan izanda, alderdi hauen arteko oreka bilatuko da:

- Musika-estiloa.
- Behar teknikoak.
- Proposamen ekonomikoak.

Estilo eta genero guztietako proposamenak aurkeztu ahal izango dira.

3/ Izena emateko formularioa.

Ezinbestekoa da [izena emateko inprimakia](#) betetzea

4/ Epeak.

Must +Pro Live '26 eta Must +Pro Sarean '26 showcasetarako proposamenak aurkezteko epea martxoaren 1ean amaituko da, 23:59an. Egun horretatik aurrera ez da proposamenik onartuko.

Must +Pro Live '26 eta Must +Pro Sarean '26 showcasetan aurkezpena egiteko hautatutako musika proposamenak 2026eko martxoaren erdialdean jakinaraziko dira.

5/ Informazioa eta kontsultak: proiektuak@musikabulegoa.eus